

Ludwig Van Beethoven

1. Irakurri, gogoratu eta entzun.

Ludwig Van Beethoven konpositorea Bonnen jaio zen (Alemania), 1770eko abenduaren 16an.



Joseph Haydnek, haren talentua ikusita zur eta lur, Vienara joateko eskatu zion Beethoveni, bere ikasle izan zedin.



Bost urte baino ez zituela, dagoeneko klabezina jotzen aritzen zen, aitaren altxoan eserita.



1801ean-edo, gorra geratzen ari zela jakinarazi zion Beethovenek adiskideei.



Hamabi urte zituela, lehen lanak argitaratu zituen; eta hamalau zituela, dagoeneko irakasle zen.




Beethoven, konposatzen zuen musika entzun nahi eta ezin, pianoaren hantek sortzen zuten bibrazioa hauteman nahian aritzen zen beti.





1824ko maiatzaren 7an *Bederatzigarren sinfonia* eman zen lehen aldiz. Ordurako erabat gorra egon arren, Beethovenek markatu zuen konpasa, orkestra-zuzendariarekin batera. Arrakasta itzela izan zuen, baina nola diren kontuak: Beethovenek ez zuen entzuleen txalo-zaparrada entzun, eta bizkarka jarraitu zuen, harik eta kantari batek bira eginarazi zion, txaloak jaso zitzan.



Beethoven Vianan hil zen, 1827ko martxoaren 26an. Denetarik idatzi zuen: sinfoniak, kontzertuak, sonatak, opera bat, eta ganbera-musikako lan ugari.

2. Osatu.

Ludwig Van Beethoven _____, urtean jaio zen,
Alemaniako _____ hirian. _____ urte
zituela, klabezina jotzen zuen. _____ urte zituela,
dagoeneko irakasle zen. Musikari handi bat izan zuen
irakasle Vianan: _____
_____, urte inguruan, adiskideel-eta jakinarazi zien
_____, geratzen ari zela. Urte batzuk geroago,
lehen aldiz _____
eman zenean, erabat gorra zegoen Beethoven; ezin izan
zuen entzuleen _____ entzun, harik eta
kantari batek _____
Beethoven _____ ko hirian hil zen,
_____ urtean.

3. Irakurri.

Bitxikeriak eta gertaerak

- Txori txukiek kontatzen dutenez, sartu omen zen Beethoven behin jatetxe batean, betiko moduan bere pentsamenduetan eta musikan erabat bilduta, eta eseri omen zen mahai batean. Orduak eta orduak han eserita egon ondoren, gaua heldu eta jatetxea itxi behar zutela eta, Beethovenek galdetu zion zerbitzariari ea zenbat zor zion, eta honela erantzun omen zion zerbitzariak: «Baina ez duzu ezer edan ez jan eta».